

Gizakia askatasunaren bila

Aske eta mugatu izatearen bizipena

Barru-barrutik esperimentatzen dugu pertsona aske izateko deia eta ezin gara entzungor geratu. Askatasunerako deia, esperientzia unibertsala da, edozein kultura, arraza eta egoeratan bizi eta sentitutakoa. Barru-barrutik sortzen zaigu aske gareneko ziurtasuna. Inork ezin digu sentsazio hori eragotzi.

Baina, aldi berean, mugatu ere sentitzen gara. Batzuetan geure buruak, geure baldintza fisiko edo psikologikoen mugatzen gaituzte. Beste batzuetan, kanpoko baldintzek: gizarte konbentzionalismoak, bizikidetzarako, harremanetarako arau edo legeen menpe egotea... Askotariko baldintzen eraginez, neurri batean, mugatu sentitzen gara. Esperientzia 'bikoitz' honek, hau da, aske izan eta, aldi berean mugatu, duda eta zalantza ugari eragiten digu, behin baino gehiagotan sufrimendu bilakatu.

Historia bizitzaren maistra da, esaten dugu. Zenbat urte igaro behar izan da, eta oraindik igaro beharko du, esklabotasuna desager dadin, emakumeak berdin izan daitezen eskubideei dagokienez edo arraza edota erlijioagatik alderik egon ez dadin? Askatasuna, ona da, baina, zein zaila den denontzat lortzea!

▪ **Aske gara, zertarako?**

Askatasuna aipatzen dugunean, galdera sortzen zaigu: Aske izan, zertarako? "Sudur-puntan jartzen zaidana egiteko", erantzuten du hainbatek. Hala ere, ahaztu egiten dugu gure esku dagoen guztiak, berez, helburu bat duena; gauzek, eta are gehiago pertsonen xede jakin bat dute. Gauzen berariazko helburua ezagutzea eta errespetatzea jakituriaren adierazle dira. Hau errespetatzen badugu, sudur-puntan jartzen zaigun hori egitea ez da zilegi izango. Orduan... zertarako gara aske?

Bat etor gaitzake askatasuna gizatasunean hazteko dela esatean. Beste era batera esanda, gero eta gizaki osoago egiteko bide dela esatean. Hau nola ulertzen dugun alde batera utzita, argi dago aske izateko gaitasuna, aukeratzeko eta erabakitze gaitasuna ez dela inoiz besteez aprobetxatzeko, geure irizpideak indarrez ezartzeko, geure nahierara, era insolidarioan bizitzeko, beste batzuen eskubideak urratzeko... Gaitasun horrek pertsona hobe egin behar gaitu.

Kontua da, askotan, "zerbait edo norbaitengandik aske izatea" eta "zerbaitetarako aske izatea" nahastaten ditugula. Pertsona mugatu (finitu) gara eta, horregatik, ezinezkoa dugu baldintza pertsonal batzuetatik (ezaugarri fisiko eta psikologikoak, gaixotasuna, heriotza) askatzea; pertsona sozialak garenez, bizikidetasuna ordenatzen eta gure eta besteen askatasuna babesten duten arau eta legeen menpe gaude. Horregatik, inoiz ez gara "zerbait edo norbaitengandik erabat aske" izango. Baina "zerbaitetarako aske izatea" da gure helburua, pertsona bezala osotasuna jadesteko, gure bizitza eta nortasuna eratuko duten erabakiak hartzeko.

▪ **Nire eta besteen askatasuna**

Irla batean, bakartuta bizi ez garenez, askatasun pertsonala besteen askatasunari lotuta dago. Horrek ez du esan nahi besteak muga direnik nire askatasunerako, bizikidetasun jasanbera eta begirunetsua nahitaezkoa dala neure askatasuna gauzatu eta garatu ahal izateko.

▪ **Esklabotasun berriak**

Gizartean bizi gara eta horrek, besteak beste, gure garaiko esklabotasun berriak, azken batean, gure kulturaren gizarte baldintzak, esperimenez garamatza, esate baterako: kontsumismoa, larregizko indibidualismoa, sexuaren hutsaltzea, plazerraren gurtza, aginte-, protagonismo-gosea, metatzeko grina, diruz lor daitekeen guztia eskuratzeko egarria, ahalik eta gutxien ahalegintzea...

Bizitza ulertzeko era hauetako batzuk gizarte modernoaren sasi-jainko bihurtu dira eta, era batera edo bestera, kritiko izateko, aske aukeratzeko gaitasuna baldintzatzen dute eta hainbat aldiz behartuta jokatzen dugu kontsumoari, erlazio afektiboari, balio-eskalari... dagokionez. Benetan, ezinbestekoa da argitasuna, zorroztasuna, borondatea... aske izateko eta jokatzeko eta gure garaiko "esklabotasun" berrien menpe ez jausteko.

Jainkoak askatasunera deitu gaitu

Bibliako Jainkoa askatzailea da

Biblian agertzen zaigun Jainkoak dei egiten dio herriari Berarekin Ituna egin dezan. Jainkoak dei egiten du, gonbidatu, inoiz ez ezarri eta are gutxiago zapaldu.

Jesus, gizon askea

Aske izateko sortu gaitu Jainkoak eta aske izatera deitu:

"Libre izateko askatu gaitu Kristok. Iraun ezazue, beraz, sendo eta ez makurtu berriro esklabotzaren uztarpera" (Gal 5, 1).

Jesusen beraren eredia etengabeko sustagarri da kristauarentzat. Jesus, gizon askea izan zen; ebanjelioak nabarmentzen du Jesusen barruko eta kanpoko askatasuna familiarekiko, tenpluarekiko, larunbaterekiko, legearekiko, balio nagusiekiko... bere garaiko juduekin alderatuz.

Jesusek, bere atzetik jarraitzeko dei egiten duenean, gonbitea egiten du, beti ere entzuleen askatasuna aintzakotzat hartuta. Jainko Aitaren antz eta irudiko egiten gaituen askatasunaren handitasuna baloratzen duenez, nahiago du gorrotatu ordez maitatzea, txarra itzuli ordez ona itzultzea, inor hiltzea baino lehen bera hiltzea.

Jesusen izaera eta jokaeran islatzen da kristau askatasuna, San Paulok aditzera ematen digunez:

*“Zuek, senideok, askatasunera deitu zintuzten Jainkoak;
baina askatasun hori ez bekizue aitzakia izan grina txarren arabera bizitzeko;
bestela baizik, maitasunak egin zaitzatela elkarren zerbitzari” (Gal 5, 13-14).*

Fedea, gure askatasunerako eragozpen?

Batzuen ustez, fedea eragozpena da askatasunarentzat. Batzuek heredatutako fede bizi dute, askapen bezala ez ezik, betekizun bezala. Fedeaz duten ideia aginduei, eskakizunei, konpromisoei... lotuta dago eta horrek negatibitatea dakar askatasunaren bizipenerako.

Beste aldean, Jesus Berpiztuaren Espirituaren indarrak erakarrira, askatuta, libre sentitzen direla dioten kristauak daude eta Jainkoaren Erregetzaren alde eskaintzen dute bizitza.